

IM//AG enpresak itsuen bizitza errazteko robota sortu du. Robot honek, aukera ematen du itsu baten eguneroko bizitzan sortutako erronkak gainditzea eta aurre egitea. Hainbat funtzio ezberdin ditu:

- Kanean gida papera hartzen du, GPS sistemaren bitartez.
- Wifia integratuta dauka.
- Musika-errepuzitzailea dauka.
- Mugikorra edo beste gailu elektronikoak kargatzeko USB sarbidea dauka.
- Itsuaren makila gordetzeko leku bat dauka.
- Semaforoak kontrolatzeko mando bat dauka.

Robotari esker itsuek errealitatean dituzten zailtasun edo oztopoak erraztasunez gainditu ditzakete, bereziki mugikortasun zailtasunak. Gure ekimenari esker, itsua kaleetatik segurtasun handiagorekin ibili daiteke. Robota patinete moduko bat da, bere eskulekuarekin, erabiltzailea bertara lotuta joan dadin, eta behekaldean kutxa moduko bat du. Bertan itsuaren makila eta beste edozein gauza gorde daitezke, eta horretaz gain, gainontzeko funtzioak pilatzen dira bertan.

GPSaren laguntzari esker robotak itsua helbideratzen du ahotsaren bitartez eta oztopo bat hurbil baldin badago robotak soinuak transmititzen ditu baita dardarak ere itsuari oztopoaren berri emanez. Errepidea zeharkatzerako orduan, robotak semaforoa kontrolatzeko mando bat darama, horrela, itsuak arrisku gutxiagorekin eta babes handiagorekin zeharkatu ditzake errepideak.

Bere praktikotasuna agerikoa da, izan ere, egunerokotasunean ikusmenik ez duen pertsona bati mugikortasun aukera handiak ematen dizkio. Gainera, bere erabiltzailearen askatasun eta independentzia sentsazioa sustatzen du, beste pertsona baten menpe bizi behar izatea ekidinez.

ONCEren laguntzarekin gure ideia Estatu mailan zabaltzeko asmoa dugu. Prezioa altua denez, epeetan ordaintzeko aukera dago. Beste robotekin konparatuz, erabilitako materialak ekonomikoki merkeagoak dira, beste enpresa batzuk erabilitako kobreak, metalak, burdinak, koltanak, papera, margoak... birziklatzen ditugulako prezio baxuagoan lortu ahal izateko. Txakurrekin alderatuz, robot honek ez du zaintzarik eskatzen, esaterako, ez du janaririk behar, ez da garbitu behar, ez du zikintzen. Beste aldetik, adimen artifizialeko softwarea inkorporatuta darama, honi esker robotak erabiltzailearen aginduak erantzuteko gai da. Horretaz aparte, ahots laguntzaile bat darama, laguntzaile honen bitartez musika entzun, deiak egin, alarma dauka, etxeko aparatuak kontrolatzeko gai da ahotsaren bitartez.

Honekin batera, GPS bat dauka. Honi esker, kalean helbideratzen zaitu eta itsua robotaren besoaz lagunduta kaletik ibiltzea lortzen du oztoporik izan gabe. Itsuaren familia kezkatuta ez egoteko, robota momentu guztietan non dagoen jakiteko aplikazio bat sortu dugu. Beste enpresa batzuekin konparatuta 2 urteko garantia dauka eta robotak dituen kalte material guztiak babestuta daude. Bateriari buruz hitz egiterako orduan, gure robotaren bateria kargatzeko, honek karga portu batera konektatzen da eta nahiz eta bateria beteta egon robota hor geratzen da gordeta egongo balitz bezala. Itsua robotaren laguntza behar ez duenean, honek, lehen esan dugun moduan, karga portura joaten da (normalean gauean). Bateriaren iraupena 20 egunekoa da.